

...elkarrizketa

**Denis Azkarate**• GERNIKAKO MARIJESIETAKO
BAKARLARIA •«Marijesien
ohitura sendo
dago»Gaur goizean egingo dute
Marijesiek azken erronda,
Gernikako kaleetan zehar■ Zer balantze egin dai-
teke Marijesien aur-
tengo jardunaz?Azken urteotako giroaren
antzekoa izan dugu. Bede-
ratzi egunez, goizaldeko
lauretan abiatu gara
herriko txoko guztietan
zehar abesten; 50 bat
lagunek hartu dugu parte.
Jende kopurua zapatuan
hazi zen gehien, 90 lagu-
nera iritsiz.Marijesien ohitura sendo
dago. Jendeak serio
hartzen du eta ez dator
denborapasan, ahalik eta
ondoan abestera baizik.■ Zapatuan Marijesi
zaharren afaria egin
zenuten, ezta?Bai, aspaldiko kontuak
gogoratu genituen. Bertan
egon zen Jose Antonio
Arana ere, Euskaltzaindi-
ko kidea. Hura izaten da
gure jardueraren *termo-
metroa*, eta esan zigunez
aurten inoiz baino hobeto
aritu omen gara.■ Nesken parte-hartzeak
handitzen jarraitzen al
du?Azken urteotan nesken
parte-hartzeak sekulako
jauzia eman du eta, lehen
egunetan izan ezik, mutil
baino neska gehiago batu
dira Marijesietan.■ Gaur goizeko erronda
egingo duzue, ezta?Bai, azken egunean hiru
erronda egiten ditugu.
Azkena, dirua batzekoa
izango da, 10:00etan hasi-
ta, eta bildutakoa Carista-
si emango diogu.**Joseba Arruti**
GERNIKA-LUMO

...esaera

«Astoak bere burua laudatzen»

...hizpideak

**FLNCren baldintzarik
gabeko su-etena**■ Korsikako lau erakunde
armatuk iragarri zuten
atzo «baldintzarik gabeko
su-etena» erabaki dutela,
«bake prozesuari berme
bat emateko» gisan eta
«Lionel Jospinek agerian
botzitateko elkarrizketarako
borondatea ikusita». Haa-
tik, prentsaurrekoan ira-
kurritako agiriak zioenez,
Parisi beha daude orain:
«Erne geratuko gara, gu-
retzat funtsezkoa den es-
kakizun bat gauzatu da-
din, hau da korsikar po-
puluaren errekonozimen-
dua». Lau erakunde hori-
ek jakiterat eman zuten,
halaber, FLNC izen soilahartuta, bat egiten zutela.
Iragarpen hau ez zen us-
tekabekoa izan, lau era-
kunderen artean garrantzi
handiena duenak, FLNC
historikoak, jakiterat
eman baitzuen, joan den
abenduaren 13an, «eki-
men historiko bat hartze-
ko prest» zegoela. Egun
hartan ziren Korsikako 28
hautetsi Matignonerat jo-
an, Jospin lehen minis-
troak egindako gonbida-
penari erantzunda. Hau-
tetsi horien artean egon
ziren Corsica Nazione
abertzale batasunak Kor-
sikako Asanblean dituen
zortzi ordezkarietatik bi.**Ipar Irlandako
keinua**■ Eguberriak senide eta
lagunekin igaro ahalko
dituzte Ipar Irlandako
preso politikoez, Londre-
sek keinu gisa libre utzi-
ko dituelako. Keinua bat
besterik ez da, baina kei-
nu positiboa, finean.
Prozesuak etenik gabe
jarraitzen badu, 2000ko
uztailerako denek libre
behar dute egon. Ordea,
horretarako borondate
handiarekin jokatu be-
harko dute guztiek ere,
eta dauzkaten ezberdin-
tasunak gainditu. Ez da
errazaizango, baina ga-
tazka humanizatzeko
lagunduko du.

...pertonaiak

**ASIER POLO** • Klasikoaz
bestelako musikare-
kin itzuli da etxera
Asier Polo biolontxelo
jole bilbotarra. Tekni-
ka ikasi ondoren dato-
rrela interesgarriena
dio, «bide berriak jorratzea».**JUAN JOSE LIZARBE** • PSN-
ko idazkari nagusiak
dio EHren eta EAJren
proposamenek ez
dutela balio. Euskal
alderdi abertzaleek
Stockholmeko sindro-
mea dutela esan du.**ABEL MUNIATEGI** • Atzo
esan zuenez, EAK pro-
posatzen duen bidea
Espainiako Konstitu-
zioa, Autonomia Esta-
tutua eta Foru Hobe-
kuntza abiapuntutzat
hartu eta eskaintzen dituzten zirri-
kituez baliatzea da.**Antzerkia arma
bat denean**■ Gizaki eta gizarte be-
rria ditu helburu Alfonso
Sastrek, eta horiek lor-
tzeko, aspaldi hautatu
zuen antzerkia armatzat.
Espainian bezala Euro-
pan, antzerki idazle bi-
kainenetariko bat da. Ez
da, baina, horren ordai-
nezkoa antzokietan duen
presentzia urria. Desero-
so sentiarazten dituelako
bat baino gehiago ziurre-
nik. Ezagutza aitortu
nahian, hainbat adituk
liburu bat osatu dute.**Orain, emaitzak**■ 22 gizarte eragilek Iru-
ñean *Bai Euskarari* akor-
diora sinatu zutenetik
urtebete joan da. Nork
bere alorrean euskararen
normalizazioa bultzatze-
ko konpromisoa hartu
zuten orduan 22 eragile-
ok, eta engaiamendu hori
bera 700 eragiletara
zabaldu zen joan den
maiatzean. Plan Estrate-
gikoan lan egiteko kon-
promisoa hartu zuten
orduan gizarteko alor oso
desberdinetako elkarte
eta erakundeek.Geroztik, Kontseilua-
ren gidaritzapean, 23
lantaldetan banatuta,
sektore bakoitzaren
azterketa egin, helbu-
ruak finkatu eta konpro-
misu zehatzak zerrenda-
tu dituzte. Plan Estrate-
gikoaren behin betiko
diseinua idatzita egongo
da martxorako, eta nork
bere etxean zein neurri
hartuko dituen erabaki-
tzeko ueña izango da
orduan. Emaitzak jaso-
tzeko ueña. Ondorioak
ikustekoa.

...datua

54. egunean ere gose grebarekin
jarraitzeko asmoa azaldu du Jose-
txo Arizkurennek.

...adierazpena

«*Duela bost urte kaiola barruan
jokatu nuenean, sekula ez nuela
finalik usainduko zioten*»**Mikel Unanue**
Pilotaria

... seiko urrea

• EMILIO LOPEZ ADAN •

Ramadan rap**R**amadanen peniten-
tzian / ari gara mai-
ruak / gu baino as-
koz hobeki / ez dira euskaldu-
nak / bientzat da gobernu /
Parisko zuloan / izorratzen
gaituzte / betiko pitoak / Kan-
tauri gose greban / Filipe espe-
txean / gure anaia gazteak /
maiz tribunaletan / juezek eta
fiskalek / lelo berberean /
errebeldien kontra / zigor go-
gorrenak.Autoak erretzeko / postak
funditzeko / hobeki egiten du-
gu / zu-guziek baino / gero gu-
re arrangurak / ongi esplika-
tzeko / soziologo jakinek / be-
te prentsa oro.Zuek ere duzue / aitzindari
ausartak / desobedientzia zi-
bila / egiteko prestak / azpimi-
nistroak deitu / nahi zuen le-
kura / eta hamarrak zalu-zalu
/ joan Pariserat / uste badu-zue / larruko zuriak
/ gu baino hobeki /
ari zaretela / Allah-
ren miseriak / gorde zaitzate-
la.Arabez mintzo ga-
ra / gu gure artean /
karrikan ari gara /
gu gure hizkuntzan / Fran-
tziak egin gaitu / frantsesdun
eskolan / gorroto dugulako /
bidal pikutara / zuen arteko
gehienak / frantses okituak /
pilota eta musa / ongi dakitela
/ euskaldun pur-purak / di-
rela ustean / arabiera biziko /
hemen eta han / euskara gal-
duko / Maule eta Arrospan /ehiza eta tradizioa /
kasketa buruan /
zuek eskopeta / guk
ganibeta / egon gin-
tezke / elkarren au-
rrean.Beitu nola hiltzen /
gaituzten Txetxenien
/ arabiarrek ez dira / bai mu-
sulmanoak / ezin ulert deza-
ket / nola zure artean / Biba
Errusia dioten / komunista
zaharrak / aberria ez bada
aberi / gorrien azpian / eus-
kaldunek duzue / aberi bu-
ruan / Kosovon ere bai / zine-
ten dudatan / gure etsaia iza-
nik / Varsovi paktua / eaikusten duzuen / nor den zan-
patua.Despeditzen naiz / urdeak
gomutan / guk jaten ez ditugun
/ abere maiteak / Tomaseko
Katalin / kuttin ederrena / eta
Jeltsinen morroia / Putin dei-
tzen dena / Madrilekoak ere /
ez dira meheak / berriz konkis-
tatzeko / Amerika guztia / sei
aski omen dira / gurutzada be-
rria.Mairuek behar dugu / zer-
bait erraitea / gutarteko txarre-
nak / GALen izan ziran / bar-
kamena eskatzeko / heldu zait
parada / oroitu gara / Joxi
eta Josean / bihoaz infernura /
jueza eta zibilak / ez baitugu
konfiantza / haien jukutrietan.Ea heltzen zaigun / zapal-
duen eguna / nonahi piztu di-
tzagun / ikatzezko suak / eta
festa handiarekin / adio Rama-
dan.